

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua egiteko zenbait baliabide fisikoekin kontaktzen dugu: ordenagailua, bertan gure webgunea eguneratuta eramateko; mugikorra, deiak jaso eta egin ahal izateko; eta lokala, bertan gure saski eta produktu guztiak gordetzeko, eta baita lanerako behar diren ondasun gehienak bertan izateko.

Lehenengo bi hauek eskuratzeko oso errez izan dugu, izan ere, gutako bakoitzak hauetako bana du gutxienez bere etxean; horregatik, ez ditugu erosi beharrik izango, eta honi esker zenbait gastu saihestuko ditugu ondoren hainbat gastuetan inbertitzeko, lokal bat alokatzen adibidez. Funtsezko elkartean adierazi dugun bezalaxe, *Uggasa* agentziak areto bat bilatu digu gure proiektua gauzatzeko, eta oso prezio onean! Beraz aurreztu dugun diru kantitatea handia da.

Baliabide intelektualei dagokienez, gutako kide bakoitzaren zaletasunetan zein abilezietan baliatuko gara, izan ere, gutako bakoitzak gaitasun desberdin bat dauka, eta hau izango da gure enpresaren indargunea.

- Brandyk, esaterako, Argentinan dauden Euskal etxeekin jarriko da harremanetan, gure enpresa ezagutzera emateko eta horrela bezero gehiago lortu ahal izateko, bera baita gure taldean salmentarako abilezia duena.
- Maialenek, aldiz, antolaketarako abilezia dauka; hori dela eta, lokalean egongo da iristen diren produktuak sailkatzeko eta saskiak egiteko garaian, dena eskuragarri egon dadin. Hori gutxi balitz, saskiak muntatzeaz ere arduratuko da.
- Bezeroen deiak jasoko dituen eta hauen galderak erantzungo dituen Iratxe izango da, horrela bezeroen beharrak jasoko ditu eta bere sormenaren abilezia erabiliz bezeroak gustura egon daitezen ziurtatuko du eta beharrezkoa bada ideia berriak proposatuko ditu.
- Azkenik, baina ez horregatik garrantzia gutxiagokoa, Libe daukagu, eta bera sistema informatikoaz (webguneaz zein sare sozialetaz) arduratuko da, hau eguneratuz eta nobedadeak txertatuz.

Banaketa posible izan dadin furgoneta bat eskuratuko dugu gure senideen bitartez, eta hau erabiliz banatuko ditugu gure saskiak Euskal Herritik zehar. Hau posible izateko, Brandy, gure taldekide zaharrena, ibilgailuarekin ibiliko da euskal kaleetatik zehar saskiak banatzen; izan ere, hemezortzi urte dituen partaide bakarra da; hots, gidatzeko baimena duen bakarra.



Lehenago aipatu dugun bezala, hau dena posible izan dadin, hasieran 1.000€ jarriko ditu gutako bakoitzak; eta horrez gain, 2.000€ko kreditu bat eskatuko diogu Laboral Kutxa bankuari. Gainera, bakoitzak 5€ko 50 errifa salduko ditu, ondorioz, beste 1.000€ lortuko ditugu. Diru hau gure proiektuarekin hasteko besterik izango ez denez eta enpresa bat hasteko garaian dirua laster bukatzen denez, dena martxan jarri behar dugu segituan eta gogor ibili beharko gara lanean!

Eskubide eta legeekin kontu handia eduki behar denez, gure senide batekin kontaktuan jarriko gara, abokatua delako eta hainbat aholku eman ahal dizkigulako. Horrez gain aholkularitza batekin kontaktuan jarri beharko gara aitorpena aurrera eramanez.

Ugaskak emandako lokalean zenbait altzari eta apalategi izango ditugu, lana modu zuzen eta ordenatu batean egin ahal izateko. Hala ere, ahal ditugun gauza gehienak famili, lagun edota ezagunengandik lortzea saiaturiko gara; beste behin, ahalik eta diru gutxien gastatzeko.

Bestalde, bezeroekiko eskuragarritasuna ziurtatzeko eta xehetasunak azaltzeko, webgunea dugu, eta gure zerbitzuari publizitatea egiteko eta bezeroak erakartzeko, aldiz, sare sozialak. Bi hauek gure kabuz sortu eta mantendu ere egingo ditugu. Horretaz gain, interneten bidez lortzen ditugun euskal etxeetako telefonoei deiak egingo dizkiogu gure produktuaz hitz egiteko eta webgunera sartzeko gonbidapena eskainiko diogu, adieraziz informazio guztia aurkituko dutela [www.blimsaskiak.eus](http://www.blimsaskiak.eus)- ean.

Inkesta bat pasatuko diegu bezeroei, gure produktuak eta emandako zerbitzuari buruz duten ikuspuntua adierazteko eta gure enpresaz gogoratzeko, produktuak berriro erostera bultzatzeko asmoz.



Bestalde, gure webgunean erreklamazio orria edukiko dute eskuragarri, gure zerbitzuarekin izandako arazoren bat guregana iristeko eta guk berehala konpondu ahal izateko. Izan ere, gure intentzioa, proiektua hobetzea eta erosleak ahalik eta erosoan sentitzea da.

Eskaintzen dugun zerbitzua bezeroak ahalik eta erosoan sentitzeko xehetasunez planifikatuta dago!

